

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**160/2019 Foru Agindua, martxoaren 29koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren abenduaren 10eko 770/2014 Foru Agindua, onesten duena 187 eredua, zeinaren bidez egiten baita, batetik, talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioei edo partaidetzei buruzko informazio aitortpena eta, bestetik, akzio edo partaidetza horiek eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errenta edo ondare irabazien gainean pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga direla-eta egindako atxikipenen eta konturako sarreraren urteroko laburpena. Urteroko laburpena**

Foru agindu honen xedea da 187 eredua onesten duen 770/2014 Foru Agindua aldatzea, batetik, eguneratzeko harpidetza eskubideen eskualdaketa onorioz lortutako ondare irabazien gaineko atxikipen betebeharra eta, bestetik, eremu berri bat eranstea, harpidetza eskubideen salmentaren ondoriozko gastuei buruzko informazioa emateko.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren abenduaren 10eko 770/2014 Foru Agindua, onesten duena 187 eredua, zeinaren bidez egiten baita, batetik, talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioei edo partaidetzei buruzko informazio aitortpena eta, bestetik, akzio edo partaidetza horiek eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errenta edo ondare irabazien gainean pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga direla-eta egindako atxikipenen eta konturako sarreraren urteroko laburpena. Urteroko laburpena.

Lehena. 2. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“2. artikulua. 187 eredua aurkeztu behar dutenak.

187 eredua aurkeztu behar dute pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga arautzen dituzten lege eta erregelamendu araudian ezarritakoaren arabera zerga horietako atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta dauden pertsonak, baldin eta, talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzio edo partaidetzak eskualdatzeko edo itzultzeko eragiketen ondorioz, atxikipenari edo konturako sarrerari loturiko errentarik ordaintzen badute.

Atxikipena duten harpidetza eskubideen eskualdatzeari dagokionez, Espainian balioen gordailuzain batek parte hartzen badu, gordailuzain horrek 187 eredua aurkeztu beharko du, eta eragiketaren bitartekari aritu den finantza bitartekariak edo fede emaile publikoak ez du zertan informazio aitortpenik egin eragiketa horiei buruz. Ez bada gordailuzainik Espainian, eskualdaketa esku hartu duen finantza bitartekariak edo fede emaile publikoak aurkeztu beharko du 187 eredua.

Era berean, 187 eredua aurkeztu behar dute kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen inguruko informazioa emateko betebeharra arautzen duen abenduaren 23ko 11/2008 Foru Dekretuak 7. artikuluan aipatzen dituen pertsona edo erakundeek, talde inbertsioko erakundeen akzioak edo partaidetzak helburu dituzten eragiketei buruz.

Talde inbertsioko erakundeen bazkide edo parte hartzaileek ez dute 187 ereduak aurkeztu behar honako hauetan aipatzen direnen kontura ordainketak egin behar izanez gero: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiko 79. artikuluko 2.d).5 eta 2.g).4. apartatuak eta Sozietateen gaineko Zergaren Araudiaren 52. artikuluko 6.5. apartatua”

Bigarrena. Honako aldaketa hauek egiten dira (II. eranskinean daude) ordenagailuz zuzenean irakur daitekeen 187 ereduko euskarriaren diseinu fisiko eta logikoetan:

Bat. «Eragiketa mota» eremua aldatu da, 104 posizioan, II. eranskinean jasotzen diren 187 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (eragiketa erregistroa), eta eduki hau du:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
104	Alfabetikoa	ERAGIKETA MOTA Eragiketa mota zehaztu behar da ondokoen arabera:
		A Eskuraketak, B edo I gakoa dutenak izan ezik.
		B Talde inbertsioko erakundeen akzioak edo partaidetza eskualdatuta edo ordainduta jasotako zenbatekoak berrinbertitu egiten diren akzio edo partaidetza eskuraketak, baldin eta lortutako ondare irabazia edo ondare galera konputatu ez bada, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 48. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoaren arabera. Salbuespena: eskualdaketa baimenaren idazkian akziodunak edo partaideak Talde inbertsioko erakundeei buruzko 35/2003 Legeko 28.2 artikuluan aipatzen den komunikazioa egiten duenean.

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
		C Kotizatzen duten inbertsio funtsen partaidetzen edo KAIS indize kotizatuen akzioen besterentzeak (eskualdatzeak edo itzulketak), Talde inbertsioko erakundeen azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Araudiko 79. artikuluan arautzen direnak.
		E Besterentzeak (eskualdaketak edo itzulketak), C, F, G, H, J, P edo Q gakoa dutenak izan ezik.
		F Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauak 48. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoaren arabera lortutako ondare irabazia edo ondare galera konputatu behar ez den besterentzeak (eskualdaketak edo itzulketak). Salbuespena: eskualdaketa baimenaren idazkian akziodunak edo partaideak 35/2003 Legeak, Talde inbertsioko erakundeek, 28.2 artikuluan aipatzen duen komunikazioa egiten duenean.
		G “Bazkide edo partaide mota” eremuan “C” gakoa duten eskualdaketak edo itzulketak, baldin eta atxikipenik aplikatu ez bada barruko edo itundutako arautegian ezarritako salbuespena dela eta, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 770/2014 Foru Agindua, abenduaren 10ekoan, onartzen duenean 187 ereduak, 7. artikuluan ezartzen den prozedura bereziarekin bat etorritik.
		H “Bazkide edo partaide mota” eremuan “C” gakoa duten eskualdaketak edo itzulketak, baldin eta atxikipena egin bada Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluko 1. idatz zatiko f) letrako 3. zenbakian ezartzen den karga tasa aplikatuta, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 770/2014 Foru Agindua, abenduaren 10ekoan, onartzen duenean 187 ereduak, 7. artikuluan ezartzen den prozedura bereziarekin bat etorritik.
		I Talde inbertsioko erakundeen akzioak edo partaidetzak eskualdatuta edo ordainduta jasotako zenbatekoen berrinbertsio diren akzio edo partaidetza eskuraketak, lortutako ondare irabazia edo ondare galera konputatu ez zaienak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 48. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorritik, baldin eta akziodunak edo partaideak Talde inbertsioko erakundeei buruzko 35/2003 Legeko 28.2 artikuluan aipatzen den komunikazioa egin badu eskualdaketa baimenaren idazkian.

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKIPZIOA	
		J	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 48. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoaren arabera lortutako ondare irabazia edo ondare galera konputatu behar ez den besterentzeak (eskualdaketak edo itzulketak), baldin eta akziodunak edo partaideak Talde inbertsioko erakundeei buruzko 35/2003 Legeko 28.2 artikuluan aipatzen den komunikazioa egin badu eskualdaketa baimenaren idazkian.
		M	Sozietate edo entitateen funts propioetako partaidetza ordezkatzan duten balioetatik datozen eta atxikipena aplikatuko zaien harpidetza eskubideen salmenta.
		P	Inbertsio funtsen eta kapital aldakorreko inbertsio sozietateen bategiteen ondoriozko eskualdaketak edo itzulketak, ondarean gertatutako irabazia edo galdera zenbatu behar izanez gero. Gako hau ipini behar dute bategitearen ekitaldian irentsitako inbertsio kolektiboko entitateek aplikatu ezin denean abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, VI. tituluko VII. kapituluaren ezartzen duen zerga araubidea.
		Q	Inbertsio funtsen eta kapital aldakorreko inbertsio sozietateen bategiteen ondoriozko partaidetzek eragiten dituzten eskualdaketak, itzulketak edo beste inbertsio funts baterako intsuldaketak. Gako hau ipini behar dute inbertsio funts irenleek ekitaldian intsuldaketa eginez gero beste inbertsio funts batera, baldin eta bategitea gertatu den ekitaldian abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, VI. tituluko VII. kapituluaren ezartzen duen zerga araubidea aplikatu ahal bada eta eta traspasoa egiten den ekitaldian bat-egite horren egunera arte sortutako errentari ezin bazailo aplikatu Arabako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 48.1 artikuluan jasotako zerga araubidea.

Bi. «Eskuraketaren edo besterentzearen zenbatekoa» eremua aldatu da, 129-141 posizioetan, II. eranskinen jasotzen diren 187 eredu diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (eragiketa erregistroa), eta eduki hau du:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKIPZIOA	
129-141	Numerikoa	<p>ESKURAKETAREN EDO BESTERENTZEAREN ZENBATEKOA</p> <p>Eragiketa motaren arabera, bazkideei edo partaideei dagozkien akzioak edo partaidetzak eskuratzaren edo besterentzearen zenbatekoa zehaztu behar da, zeinurik gabe eta hamartarik gabe, edo aitortuaren harpidetza eskubideak saltzearen ondorioz lortutako zenbatekoa.</p> <p>Harpidetza eskubideen salmentaren kasuan, adierazi behar da atxikipena egitera behartuta dagoen erakundeak zer zenbateko jaso duen aitortuari ordaintzeko, zenbateko hori murriztu gabe "HARPIDETZA ESKUBIDEAK BESTERENTZE/SALTZEAREN GASTUAK" (2 erregistro motako 228-240 kokalekuak, eragiketen erregistroa) eremuan eragiketa horrengatik erakunde gordailuzainak adierazi dituen gastuetan.</p> <p>Atxikipena egitera behartuta dagoen erakundeak gordailuzain gisa edo finantza bitartekari gisa esku hartzen duenean eragiketan, jasotako zenbatekoa ez da gastuetan murriztuko, baldin eta jasotako zenbateko hori gordailuzain gisa jarduten aplikatu badu. Horrelakoetan, gastu horiek "HARPIDETZA ESKUBIDEAK BESTERENTZE/SALTZEAREN GASTUAK" (2 erregistro motako 228-240 kokalekuak, eragiketen erregistroa) eremuan adieraziko ditu.</p> <p>Euro zentimotan adieraziko dira zenbatekoak; beraz, ez dute inoiz hamartarik izango.</p>	

Hiru. «Eskuraketaren edo besterentzearen sorburuaren edo jatorriaren gakoa» eremua aldatu da, 142 posizioan, II. eranskinen jasotzen diren 187 eredu diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (eragiketa erregistroa), eta eduki hau du:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKIPZIOA	
142	Alfabetikoa	<p>ESKURAKETAREN EDO BESTERENTZEAREN SORBURUAREN EDO JATORRIAREN GAKOA</p> <p>Eremu honetan, akzioen edo partaidetzaren eskuraketaren edo besterentzearen edo harpidetza eskubideen salmentaren sorrera edo jatorria adierazi behar da, ondoko gako hauen arabera:</p>	
		D	Ondasun erkidegoa desegitea edo erkideak banantzea.
		C	Gauza erkidea zatitzea.
		G	Irabazpidezko sozietatea desegitea edo senar-emazteen ondasunen partaidetzako eraentza azkentzea.
		M	Kosturik gabekoa, heriotzagatik.
		I	Kosturik gabekoa, inter vivos.

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA	
		F	37/2013 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, VI. tituluko VII. kapituluaren ezarritako araubide bereziari heldutako funtsek edo sozietateek bat egitea. Gako honetan ez dira sartzen partaideakategite prozesutik bereizteko daukan eskubidea erabiltzearen ondoriozko partaidetza itzulketak.
		E	Ez atxikipenik ez konturako sarrerarik aplikatu behar ez zaion ondare irabazia edo errenta, baldin eta eragiketa ezin bada sartu berariaz aurreko gako batean.
		H	Inbertsio funtsen eta kapital aldakorreko inbertsio sozietateenategiteak, baldin eta abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, VI. tituluko VII. kapituluaren ezarritako zerga araubidea aplikatu ahal bada. Gako hau ipini behar duteategite prozesuan sartzen diren inbertsio kolektiboko entitate guztiek. Orobat, inbertsio kolektiboko beste erakunde bati gerora egindako traspasoen, gako hau funts xurga tzailearen entitate kudea tzaile edo merkatura tzaileak adierazi beharko du, traspasoen eskurapen balio eta data zat bat-egitearen hartu behar direnean.
		J	Inbertsio funtsen eta kapital aldakorreko inbertsio sozietateenategiteak, ezin bada aplikatu abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, VI. tituluko VII. kapituluaren ezarritako zerga araubidea. Gako hau erabili behar duteategite prozesuan sartzen diren inbertsio kolektiboko entitate guztiek.
		O	Beste kasu batzuk Gako honetan sartu behar dira aurreko gakoetan sartu ez diren harpidetza, erosketa, eskualdaketa eta itzulketako ohiko kasuak, bai eta harpidetza eskubideen salmenta atxikipendunak ere.

Lau. «Eragiketaren emaitza» eremua aldatu da, 157-170 posizioetan, II. eranskinean jasotzen diren 187 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (eragiketa erregistroa), eta eduki hau du:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA	
157- 170	Alfanumerikoa	ERAGIKETAREN EMAITZA "ERAGIKETA MOTA" eremuan "E", "C", "G", "H", "M", "P" edo "Q" balioa jarri denean, dagokion zeinuarekin adieraziko da aitortuaren akzioaren, partaidetzaren edo harpidetza eskubidearen besterentze eragiketari dagokion ondare irabaziaren edo galeraren zenbatekoa. Eremu hau bitan banatzen da:	
		157	ZEINUA: eremu alfabetikoa. Partaidetza edo akzioa besterentzeko eragiketaren emaitza ondare galera izan bada, "N" jarri behar da. Bestela, hutsik utzi behar da.
		158-170	ZENBATEKOA: eremu numerikoa. Zenbatekoak euro zentimoetan eman behar dira; beraz, ez da behar komarik.

Bost. «Atxikipenaren eta konturako sarreraren zenbatekoa» eremua aldatu da, 175-187 posizioetan, II. eranskinean jasotzen diren 187 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (eragiketa erregistroa), eta eduki hau du:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA	
175 - 187	Numerikoa	ATXIKIPENAREN ETA KONTURAKO SARRERAREN GUZTIRAKO ZENBATEKOA ERAGIKETA MOTA" eremuan "E", "M" edo "P" balioa jarri denean baino ez. Akzioak edo partaidetzak edo harpidetza eskubideak besterentzearen zenbatekoari aplikatutako atxikipenaren eta konturako sarreraren zenbatekoa, aitortuari dagokiona. "ERAGIKETA MOTA" eremuan "M" balioa jarri denean, "ATXIKIPENAREN EDO KONTURAKO SARRERAREN %" eremuan adierazitako atxikipen tasa "ESKURATZEAREN EDO BESTERENTZEAREN ZENBATEKOA" eremuan adierazten den zenbatekoari aplikatutako zenbatekoa izango da. Euro zentimotan adieraziko dira zenbatekoak; beraz, ez dute inoiz hamartarik izango.	

Sei. «Harpidetza eskubideak besterentzearen/saltzearen gastuak» eremua erantsi da, 228-240 posizioetan, II. eranskinean jasotzen diren 187 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (eragiketa erregistroa), eta eduki hau du:

ZURIUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
228-240	Numerikoa	HARPIDETZA ESKUBIDEEN BESTERENTZE/SALTZEAREN GASTUAK Harpidetza eskubideen salmentetan (ERAGIKETA MOTA eremuko M gakoa), eragiketarik sortutako besterentze gastuen zenbatekoa adieraziko da. Euro zentimotan adieraziko dira zenbatekoak; beraz, ez dute inoiz hamartarik izango.

Zazpi. 2 erregistro motako (eragiketa erregistroa) «Zuriuneak» 228-500 posizioak «Zuriuneak» 241-389 eta «Zuriuneak» 432-500 posizioetara aldatu dira.

Hirugarrena. II. eranskineko euskarri fisikoen diseinuak foru arau honetako I. eranskinean daudenengatik ordezkatu dira.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru agindu hau indarrean sartzen denean, indargabetu egingo da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren martxoaren 20ko 127/2019 Foru Agindua, zeinak aldatzen baitu Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren abenduaren 10eko 770/2014 Foru Agindua, onesten duena 187 eredua, zeinaren bidez egiten baita, batetik, talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioei edo partaidetzei buruzko informazio aitortpena eta, bestetik, akzio edo partaidetza horiek eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errenta edo ondare irabazien gainean pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga direla-eta egindako atxikipenen eta konturako sarreraren urteroko laburpena.

#### AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra eta 2018ko ekitaldiko informazioa dela-eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren aitortpenei aplikatuko zaie lehenengo aldiz.

Gasteiz, 2019ko martxoaren 29a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua*  
**JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ**

*Ogasun zuzendaria*  
**TERESA VIGURI MARTÍNEZ**

187 EREDUA  
1. ERREGISTRO MOTA: AITORTZAILEAREN ERREGISTROA

AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA		AITORTZAILEAREN IZENA		HARREMANETARAKO PERTSONA	
EREDUA	EKITALDIA	AITORTZAILEAREN IFZ		EUSKARRI MOTA	
1	8	7			
2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31
32	33	34	35	36	37
38	39	40	41	42	43
44	45	46	47	48	49
50	51	52	53	54	55
56	57	58	59	60	61
62	63	64	65		

HARREMANETARAKO PERTSONA		AITORTZENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA		AURREKO AITORTZENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA	
ABIZENAK ETA IZENA		AITORTZEN OSAGARRIA		ORDEZKO AITORTPENA	
66	67	68	69	70	71
72	73	74	75	76	77
78	79	80	81	82	83
84	85	86	87	88	89
90	91	92	93	94	95
96	97	98	99	100	101
102	103	104	105	106	107
108	109	110	111	112	113
114	115	116	117	118	119
120	121	122	123	124	125
126	127	128	129	130	

ERANSKINA I

AITORTUTAKO ERAGIKETAK, GUZTIRA		ESKURAKETEN GUZTIRAKO ZENBATEKOA		BESTERENTZEEN GUZTIRAKO ZENBATEKOA		ATXIKIPENEN ETA KONTURA EGINDAKO SARREREN GUZTIRAKO ZENBATEKOA	
OSOA		HAMARTARRA		OSOA		HAMARTARRA	
131	132	133	134	135	136	137	138
139	140	141	142	143	144	145	146
147	148	149	150	151	152	153	154
155	156	157	158	159	160	161	162
163	164	165	166	167	168	169	170
171	172	173	174	175	176	177	178
179	180	181	182	183	184	185	186
187	188	189	190	191	192	193	194
195							

ERREGISTRO MOTA		HARREMANETARAKO PERTSONA		EUSKARRI MOTA		TELEFONOA	
196	197	198	199	200	201	202	203
204	205	206	207	208	209	210	211
212	213	214	215	216	217	218	219
220	221	222	223	224	225	226	227
228	229	230	231	232	233	234	235
236	237	238	239	240	241	242	243
244	245	246	247	248	249	250	251
252	253	254	255	256	257	258	259
260							



187 EREDUA  
2 ERREGISTRO MOTA: ERAGIKETAREN ERREGISTROA

ERREGISTRO MOTA		AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA		AITORTUAREN IFZ		LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ		AITORTUAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETA TEAREN IZENA																																																										
EREDUA	EKITALDIA	AITORTZAILEAREN IFZ		AITORTUAREN IFZ		LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ		AITORTUAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETA TEAREN IZENA																																																										
2	1 8 7	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53	54	55	56	57	58	59	60	61	62	63	64	65

AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA		AITORTUAREN IFZ		LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ		AITORTUAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETA TEAREN IZENA																																																												
EREDUA	EKITALDIA	AITORTZAILEAREN IFZ		AITORTUAREN IFZ		LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ		AITORTUAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETA TEAREN IZENA																																																										
2	1 8 7	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53	54	55	56	57	58	59	60	61	62	63	64	65

ERAGIKETAREN DATA		ISIN KODEA		ERAGIKETA MOTA		ERAGIKETAREN DATA		PARTAIDETZEN KOPURUA / SALDUTAKO HARPIDETZA ESKUBIDEEN KOPURUA																																																								
URTEA	HILA	EGUNA	URTEA	HILA	EGUNA	URTEA	HILA	EGUNA	OSOA																																																							
66	67	68	69	70	71	72	73	74	75	76	77	78	79	80	81	82	83	84	85	86	87	88	89	90	91	92	93	94	95	96	97	98	99	100	101	102	103	104	105	106	107	108	109	110	111	112	113	114	115	116	117	118	119	120	121	122	123	124	125	126	127	128	129	130

ESKURAKETAREN EDO BESTERENTZAREN ZENBATEKOA		ESKURAKETA DATA		BAZKIDE EDO PARTAIDEAREN ONDARE IRABAZI EDO GALERA		ATXIKIPENAREN eta KONTURAKO SARRERAREN ZENBATEKOA		EMAITZA MOTA																																																								
OSOA	HAMARTARRA	URTEA	HILA	EGUNA	ZENBUA	OSOA	HAMARTARRA	OSOA	HAMARTARRA																																																							
131	132	133	134	135	136	137	138	139	140	141	142	143	144	145	146	147	148	149	150	151	152	153	154	155	156	157	158	159	160	161	162	163	164	165	166	167	168	169	170	171	172	173	174	175	176	177	178	179	180	181	182	183	184	185	186	187	188	189	190	191	192	193	194	195

ESKURAKETA BALIOA		ONDAREAREN GAINEKO ZERGAKO 2006KO BALIOA		APLIKATUTAKO MURRIZKETA (33/2013 FORU ARAUAREN 1. XI)		HARPIDETZA ESKUBIDEEN BESTERENTZE/SALTZEAREN GASTUAK																																																										
196	197	198	199	200	201	202	203	204	205	206	207	208	209	210	211	212	213	214	215	216	217	218	219	220	221	222	223	224	225	226	227	228	229	230	231	232	233	234	235	236	237	238	239	240	241	242	243	244	245	246	247	248	249	250	251	252	253	254	255	256	257	258	259	260



